

ZINEMATEKA

# MANKIEWICZ *vs* MANKIEWICZ

**Rubén Corralek komisariatutako zikloa**
Ciclo comisariado por Rubén Corral

**Abenduaren 14tik martxoaren 2ra**
Del 14 de diciembre al 2 de marzo

**ARTEA ETA KULTURA**
ARTE Y CULTURA

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.eus

# MANKIEWICZ

# VS

# MANKIEWICZ

**Herman Jacob Mankiewicz** Hollywooden gehien irabazi zuen gidoigileetako bat izan zen, eta Paramounteko gidoien saileko burua ere bai, 20ko hamarkadaren bukaeran eta 30ekoaren hasieran. Alemaniako judutar migratzaileen semea izanik, New Yorken jaio zen 1897an, eta Pennsylvanian bizi izan zen haurtzaroan. Filosofian lizentziatu zen Columbiako Unibertsitatean, Chicago Tribuneko berriemaile izan zen Berlinen eta etxera itzuli zene, antzerkiko kritikari bezala idazteko, Vanity Fair, The Saturday Evening Post eta New York Times argitalpenetan hain zuen, eta ondoren New Yorker-ean. Horace Greeleyk Hollywoodera joatea gomendatu zion, eta film mutuentzako intertituluak idazten hasi zen.

Estimatua bere eztena eta umoreagatik, zaletasun modernoak eta boladan zebilenetik hain urruneko ukitu satiriko bereizgarriagatik, Paramountek ez zuen luze itxaron gidoi saileko buru izendatu aurretik. Kargu hartatik, bere anaia gaztea ere eraman zuen Hollywoodera, Joseph Leo Mankiewicz, Artearen Historian lizentziatua, eta bat-batean, soldatadun Paramounteko idazlerik gazteena bihurtu zen, 21 urterekin.

Los Angeles Timesek urte horretako uztailaren 7an jakinarazi zuen egonezineko Josephek errekor bat hautsi berri zuela zortzi aste eskasean sei filmetako intertituluak eginda (dagoeneko aipatutako Thunderboltez gain, The dummy, Close harmony, The studio murder mystery, The man I love eta The mysterious Dr. Fu Manchu). Film soinudunen bertsio mutuetako intertituluak egitea zen bere lana, soinudun filmak proiektatzeko behar zen ekipamendurik artean ez zeukaten aretoetarako.

**Herman Jacob Mankiewicz** fue uno de los guionistas mejores pagados de Hollywood y el jefe del departamento de guiones de la Paramount en los últimos años 20 y primeros 30. Hijo de emigrantes judíos alemanes, nació en Nueva York en 1897, y vivió su infancia en Pennsylvania. Se licenció en Filosofía en la Universidad de Columbia, fue corresponsal en Berlín del Chicago Tribune y regresó a casa para escribir en el Vanity Fair, The Saturday Evening Post o el New York Times como crítico de teatro, antes de pasar al New Yorker. Horace Greeley le recomendó ir a Hollywood, donde empezó escribiendo intertítulos para films mudos.

Muy apreciado por su mordacidad, sus gustos modernos y un característico toque satírico muy alejado de las modas, la Paramount no tardó en nombrarle jefe del departamento de guiones. Desde ese cargo traería a Hollywood a su hermano menor, Joseph Leo Mankiewicz, licenciado en Historia del Arte. Era 1929, y el hermano pequeño de H.J. Mankiewicz era el escritor a sueldo más joven del estudio con 21 años.

Pero además, en los años treinta, Herman J. Mankiewicz también fue productor ejecutivo de algunas de las más conocidas películas de los Hermanos Marx -entre ellas ‘Sopa de ganso’ (Leo McCarey, 1933)-, con quienes estableció una gran amistad. Además escribió su primer gran éxito absoluto: la comedia sofisticada de la MGM ‘Cena a las ocho’ (George Cukor, 1933). Para mediados de la década, H. J. Mankiewicz ya estaba contratado por la Metro-Goldwyn-Mayer, donde realizaría guiones para comedias protagonizadas por Spencer Tracy, William Powell o Rosalind Russell.

Horretaz guztiaz gain, hogeita hamargarren hamarkadan, Herman J. Mankiewicz Marx anaien filmen artean ezagunenetakoak diren batzuen ekoizle exekutiboa ere izan zen –'Ahate-zopa' (Duck soup, Leo McCarey, 1933) adibidez-, eta anai haien oso lagun bihurtu zen. Gainera, bere lehenengo erabateko arrakasta idatzi zuen: MGM-ko 'Dinner at eight' (Afaria zortzietan, George Cukor, 1933) komedia sofistikatua. Hamarkadaren erdialdean, H. J. Mankiewicz Metro-Goldwyn-Mayerrek kontratatu zuen, Spencer Tracy edo William Powell eta Rosalind Russell protagonista zituzten komedietarako gidoiak idatzi zituelarik.

Anaia Joseph ekoizle moduan bere balioa erakutsi eta Hollywoodeko eskailera mailetan gorantz zihoan bitartean, Hermanek edanarekin eta jokoarekin zeukan arazoa larriago bihurtzen zuen gonbidatzen zuten festa bakoitzean. Haietan, Hollywoodeko hainbat kontu salatzen zituen bide batez, irudimen handiko bere erantzun ironikoekin, baina oraingoan aurkako eraginarekin, lanik gabe gelditu zen.

Une berean, bere ibilbideak Orson Wellesekin egin zuen topo, RKO Picturesekin kontratua sinatu baitzuen hiru film erabateko askatasunarekin egiteko. Wellesek Herman J. Mankiewicz kontratatu zuen film bat garatzen lagun ziezaion. Ideia batzuk alboratu ostean, bukaerarik gabeko anbizioa zeukan prentsako handi-mandi ustel bati buruzko gidoiari ekin zioten. Los Angeles kanpoaldeko oporretarako gune batean giltzapetu ziren gidoia idazteko.  Citizen Kane estreinatu -arrakastaz- eta gero, filmaren aurka W. R. Hearstek egin zuen kanpaina gogorra iritsi zen. Horren eraginez, Mankiewicz eta Welles ez ziren izan Oscar sarien hurrengo urteko banaketan, Mankiewiczek bere estatuatxo bakarra lortu bazuen ere. Etxean jakin zuen, irratia entzunda.

Hurrengo urtean Oscarretarako beste izendapen bat lortu zuen 'The pride of the yankees' (Yankien harrotasuna, Sam Wood, 1942), biopicari esker, baina adikzioek eragotzi zioten idazle lana jarraian egin ahal izatea. 1953ko martxoaren 5ean hil zen  giltzurrun-gutxiegitasun baten ondorioz. Ordurako, bere anaia txikienaren ibilbidea behin betiko finkatuta zegoen, Hollywooden ahalmen gehien zuen zuzendarietako bat baitzen. Bi urtean jarraian gidoigile eta zuzendari onenaren Oscar sariak irabazi zituen, 'A letter to three wives' (Hiru emazterentzako gutuna, 1949) filmarekin eta 'All about Eve' (Dena Evari buruz, 1950).

Joseph familiarekin batera New Yorkera lekualdatu zen berrogeita hamargarren hamarkadan, bere ustez inoiz egin zuen filmik onena egin aurretik: Shakespeareren 'Julius Caesar' (Julio Zesar) obraren bertsioa (1953), Marlon Brando izarra protagonista zela. Bere ibilbideko hurrengo urratsa une hartako izarrik handienarekin izan zuen lotura: Elizabeth Taylor izan zen protagonista 'Suddenly, last Summer' filmean (Bat-batean, azken uda, 1959) eta 'Cleopatra' proiektu mastodontikoan (1963).

Zinemarako egin zituen azken lanak hauek izan ziren: 'The honey pot' (Emakumeak Venezian, 1967), komedia tonuko 'There was a crooked man' westerna (Bazen gaizkile bat, 1970), eta maisulan bat, 'Sleuth' (Aztarna, 1972). 83 urterekin hil zen Bedfordeko bere etxean.

// Rubén Corral

Mientras su hermano Joseph ascendía en el escalafón de Hollywood, Herman agravaba sus problemas con el juego y la bebida. En cada fiesta a la que le invitaban denunciaba la superficialidad de Hollywood con réplicas irónicas e imaginativas que no sirvieron para evitar quedarse sin trabajo. Fue entonces cuando se cruzó con Orson Welles, que había conseguido un contrato con la RKO Pictures para hacer películas con una libertad absoluta. Welles contrató a Herman para ayudarle a desarrollar una película, y comenzaron el guión de un magnate de la prensa corrompido por una ambición interminable. Welles y Mankiewicz se recluyeron en un complejo vacacional en las afueras de Los Angeles para escribir el guión. Tras el estreno -y éxito- de Citizen Kane, llegó la dura campaña contra la película por parte de W. R. Hearst, que incluso llevó a Mankiewicz y Welles a no acudir a la entrega de los Oscars del año siguiente, en la que Mankiewicz consiguió su única estatuilla.

Lograría al año siguiente otra nominación a los Oscars por el guión del biopic 'El orgullo de los Yankees' (Sam Wood, 1942), pero sus adicciones le volvieron a alejar de su labor como escritor. Murió el 5 de marzo de 1953 como consecuencia de una insuficiencia renal. Para entonces la carrera de Joseph estaba definitivamente consolidada como uno de los directores con mayor poder de Hollywood.  Por dos años consecutivos se alza con los Oscar de guión y dirección por 'Carta a tres esposas' (1949) y por una de sus obras maestras 'Eva al desnudo' (1950).

Joseph se mudó junto a su familia a Nueva York a principios de los 50, poco antes de rodar la que consideraba su mejor película: su versión de la obra de Shakespeare 'Julio César' (1953), protagonizada por un estelar Marlon Brando.  El siguiente paso en su carrera estuvo relacionado con una de las mayores estrellas del momento: Elizabeth Taylor protagonizó 'De repente, el último verano' (1959) y el mastodóntico proyecto 'Cleopatra' (1963).

Sus últimos trabajos para el cine fueron 'Mujeres en Venecia' (1967), 'El día de los tramposos' (1970) y una obra maestra: 'La huella' (1972). Falleció a los 83 años en su casa de Bedford.

## EGITARAUA PROGRAMA

| | | |
|---|---|---|
| **ABENDUAK 14** DE DICIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:00<br>19:30 | **ALL ABOUT EVE (EVA AL DESNUDO), 1950**<br>Joseph L. Mankiewicz 138' 35mm<br>Presentación **Rubén Corralen aurkezpena**<br>**Citizen Kane (Ciudadano Kane), 1941**<br>Orson Welles 119' DCP |
| **ABENDUAK 15** DE DICIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:30 | **CITIZEN KANE (CIUDADANO KANE), 1941**<br>Orson Welles 119' DCP<br>Presentación **Jose Julián Bakedanoren aurkezpena**<br>**ALL ABOUT EVE (EVA AL DESNUDO), 1950**<br>Joseph L. Mankiewicz 138' 35mm |
| **ABENDUAK 21** DE DICIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:00<br>19:30 | **5 FINGERS (OPERACIÓN CICERÓN), 1952**<br>Joseph L. Mankiewicz 108' 35mm<br>**THE PRIDE OF THE YANKEES (El orgullo de los Yankees), 1942**<br>Sam Wood 128' Digital |
| **ABENDUAK 22** DE DICIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:30 | **THE PRIDE OF THE YANKEES (El orgullo de los Yankees), 1942**<br>Sam Wood 128' Digital<br>**5 FINGERS (OPERACIÓN CICERÓN), 1952**<br>Joseph L. Mankiewicz 108' 35mm |
| **URTARRILAK 11** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles<br>**URTARRILAK 12** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:00 | **THE BAREFOOT CONTESSA (LA CONDESA DESCALZA), 1959**<br>Joseph L. Mankiewicz 128' 35mm |
| **URTARRILAK 18** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:00<br>19:30 | **A LETTER TO THREE WIVES (CARTA A TRES ESPOSAS), 1949**<br>Joseph L. Mankiewicz 103' 35mm<br>**JULIUS CAESAR (Julio Cesar), 1953**<br>Joseph L. Mankiewicz 120' 35mm |
| **URTARRILAK 19** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:30 | **JULIUS CAESAR (Julio Cesar), 1953**<br>Joseph L. Mankiewicz 120' 35mm<br>**A LETTER TO THREE WIVES (CARTA A TRES ESPOSAS), 1949**<br>Joseph L. Mankiewicz 103' 35mm |

| | | |
|---|---|---|
| **URTARRILAK 25** DE ENERO<br>**Asteazkena** Miércoles<br>**URTARRILAK 26** DE ENERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:00 | **GUYS AND DOLLS (ELLOS Y ELLAS), 1955**<br>Joseph L. Mankiewicz 150' Digital |
| **OTSAILAK 1** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles<br>**OTSAILAK 2** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:00 | **THE HONEY POT (MUJERES EN VENECIA), 1967**<br>Joseph L. Mankiewicz 131' 35mm |
| **OTSAILAK 8** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles<br>**OTSAILAK 9** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:00 | **SLEUTH (LA HUELLA), 1972**<br>Joseph L. Mankiewicz 138' Digital |
| **OTSAILAK 15** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:00<br>19:30 | **THE GHOST AND MRS. MUIR (EL FANTASMA Y LA SEÑORA MUIR), 1947**<br>Joseph L. Mankiewicz 104' 35mm<br>**DINNER AT EIGHT (CENA A LA OCHO), 1933**<br>George Cukor 113' Digital |
| **OTSAILAK 16** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:30 | **DINNER AT EIGHT (CENA A LA OCHO), 1933**<br>George Cukor 113' Digital<br>**THE GHOST AND MRS. MUIR (EL FANTASMA Y LA SEÑORA MUIR), 1947**<br>Joseph L. Mankiewicz 104' 35mm |
| **OTSAILAK 22** DE FEBRERO<br>**Asteazkena** Miércoles<br>**OTSAILAK 23** DE FEBRERO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00<br>19:00 | **NO WAY OUT (UN RAYO DE LUZ), 1950**<br>Joseph L. Mankiewicz 101' 35mm |
| **MARTXOAK 1** DE MARZO<br>**Asteazkena** Miércoles<br>**MARTXOAK 2** DE MARZO<br>**Osteguna** Jueves | 17:00 | **CLEOPATRA, 1963**<br>Joseph L. Mankiewicz 243' Digital |

**› Zinematekako programazioan aldaketak egon daitezke.**
**› Film guztiak JBGA (jatorrizko bertsioa azpitituluekin), soinua erantsita eta ingelesezko errotuluekin.**

› La programación de Zinemateka está sujeta a cambios
› Todas las proyecciones son VOSE (versión original subtitulada) sonorizadas con rótulos en inglés.



## ALL ABOUT EVE (1950)
DENA EVARI BURUZ
EVA AL DESNUDO

**EE.UU 138'**

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz **A:** Bette Davis, Anne Baxter, George Sanders, Celeste Holm, Gary Merrill, Hugh Marlowe, Gregory Ratoff

**Neska gazte batek aktoresa izan nahi du eta eszenatokietan ospea lortu nahi du. Antzerkiko aktore talde batean sartu, aktoresa ospetsu baten adiskide egin, eta haren konturik isilenak ere jakingo ditu. Antzezteko duen grinaren eta jeloskortasunaren ondorioz, bere kideak traizionatu egingo ditu arrakastarako bidean. 1950ean sei Oscar sari irabazi zituen.**

Una joven que aspira a convertirse en actriz y triunfar en los escenarios se las ingenia para introducirse en un grupo de actores de teatro y hacerse amiga y confidente de una famosa actriz. Su ansia por actuar y los celos la consumen hasta el punto de traicionar a sus compañeros en su escalada hacia el éxito. Ganadora de 6 Oscars en 1950. //




## CITIZEN KANE (1941)
KANE HIRITARRA
CIUDADANO KANE

**EE.UU 119'**

**Z/D:** Orson Welles **G:** Orson Welles, Herman Jacob Mankiewicz **A:** Orson Welles, Joseph Cotton, Dorothy Comingore, Everett Sloane, Agnes Moorehead, Ruth Warrick, Erskine Sanford

**Charles Foster Kane, komunikazioko handikietako bat, Xanaduko bere luxuzko etxe ikusgarrian hil da. Hil aurretik esandako azkeneko hitza "Rosebud" izan da. Hitz horren esanahia enigma hutsa da, eta kazetari talde bat esanahi hori aurkitzen saiatuko da.**

Charles Foster Kane, uno de los grandes magnates de la comunicación, muere en su fabulosa mansión de Xanadú. La última palabra que pronuncia antes de morir es "Rosebud". Su significado es un enigma que un grupo de periodistas pretende desentrañar. //



## 5 FINGERS (1952)
BOST ATZAMAR
OPERACIÓN CICERÓN

**EE.UU 108'**

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Michael Wilson **A:** James Mason, Danielle Darrieux, Michael Rennie, Walter Hampden, Oskar Karlweis, Herbert Berghof, John Wengraf

**1944. Alemaniak eta Erresuma Batuak Turkian (herrialde neutrala gerran) dituzten enbaxadoreak Anna Staviskak emandako jaialdi batera joan dira. Ulysses Diello britainiar enbaxadorearen laguntzailea handinahia eta buru argia da, eta alemaniarrei bere burua eskainiko die, diru askoren truke isilpeko informazioa emateko.**

Año 1944. El embajador de Alemania y el del Reino Unido en Turquía (un país neutral durante el conflicto) asisten a una recepción que da la condesa Anna Staviska. El ambicioso e inteligente ayuda de cámara del embajador británico Ulysses Diello se ofrece a los alemanes para pasarles información de alto secreto a cambio de importantes sumas de dinero. //



## THE PRIDE OF THE YANKEES (1942)
YANKIEN HARROTASUNA
EL ORGULLO DE LOS YANQUIS

**EE.UU 128'**

**Z/D:** Sam Wood **G:** Herman Jacob Mankiewicz, Jo Swerling **A:** Gary Cooper, Teresa Wright, Babe Ruth, Walter Brennan, Elsa Janssen, Ludwig Stössel

**Lou Gehrig beisboleko jokalari profesional ospetsua da. Urteetan partidu bat bera ere galdu gabe ibili ondoren, gaixotasun misteriotsu bat diagnostikatuko diote.**

Lou Gehrig es un legendario jugador profesional de béisbol. Tras jugar durante años sin perderse ni un solo partido, le diagnostican repentinamente una misteriosa enfermedad. //



## THE BAREFOOT CONTESSA (1954)
KONDESA OINUTSIK
LA CONDESA DESCALZA

EE.UU 128'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz
**A:** Humphrey Bogart, Ava Gardner, Edmond O'Brien, Warren Stevens, Marius Goring, Valentina Cortese, Rossano Brazzi

**Hiru zinemagile estatubatuarrek Maria Vargas dantzari espainiarra ezagutu dute. Berehalako batean, Hollywoodera eraman dute, dantzari ezezaguna zinemako izar bihurtzeko asmoz.**

Tres cineastas estadounidenses descubren a la bailarina española María Vargas. Sin perder ni un minuto, se la llevan a Hollywood dispuestos a lanzar a esta desconocida al estrellato. //



## A LETTER TO THREE WIVES (1949)
HIRU EMAZTEENTZAKO GUTUNA
CARTA A TRES ESPOSAS

EE.UU 103'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz
**A:** Jeanne Crain, Linda Darnell, Ann Sothern, Kirk Douglas, Paul Douglas, Jeffrey Lynn, Barbara Lawrence

**Hiru emaztek Addey Ross izeneko adiskide baten eskutitza jaso dute; bertan adierazten die haietako baten senarrarekin joan dela. 1949an zuzendari onenaren eta gidoirik onenaren Oscar sariak lortu zituen.**

Tres mujeres reciben una carta de una amiga llamada Addey Ross en la que les dice que se ha fugado con uno de sus maridos. Ganadora del Oscar 1949 al mejor director y al mejor guión. //





## JULIUS CAESAR (1953)
JULIO ZESAR
JULIO CÉSAR

EE.UU 120'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz
**A:** Marlon Brando, James Mason, John Gielgud, Louis Calhern, Edmond O'Brien, Deborah Kerr, Greer Garson

**Kristo aurreko 46. urtean Zesar eta Ponpeio arteko gerra zibila amaitu ondoren, Zesar bizi osorako diktadore bihurtu zen eta Errepublikako botere guztiak bereganatu zituen. Handik bi urtera, askatasun errepublikarrak defendatzen zituzten Casio eta Bruto erromatar nobleek Zesarren aurkako altxaldia hasi, eta urte horretako martxoan erail zuten.**

Terminada la guerra civil entre César y Pompeyo el año 46 antes de Cristo, César se convierte en dictador vitalicio y concentra todos los poderes de la República. Dos años después, Casio y Bruto, dos nobles romanos defensores a ultranza de las libertades republicanas, encabezan una conjura contra César, que es asesinado en los idus de marzo de ese mismo año. //



## GUYS AND DOLLS (1955)
GIZONAK ETA EMAKUMEAK
ELLOS Y ELLAS

EE.UU 150'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz, Ben Hecht **A:** Marlon Brando, Jean Simmons, Frank Sinatra, Vivian Blaine, Robert Keith

**Nathan Detroit dado partidu bikainak antolatzen aritzen da New Yorken, eta mila dolar egingo dizkio apustu jokalarietako bati, Salbazio Armadako neska puritano bat ezetz maitemindu.**
**1956an Urrezko bi Globo irabazi zituen: Filmik onenarena (komedia edo musikala) eta aktorerik onenarena (komedia edo musikala) Jean Simmonsek.**

Nathan Detroit, organizador de las partidas de dados más selectas de Nueva York apuesta mil dólares con uno de los jugadores a que no es capaz de enamorar a una joven puritana que pertenece al Ejército de Salvación. Ganó el Globo de Oro a la mejor película (comedia o musical) y a la mejor actriz (comedia o musical) para Jean Simmons en 1956. //



## THE HONEY POT (1967)
EMAKUMEAK VENEZIAN
MUJERES EN VENECIA

EE.UU 132'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz, Ben Hecht **A:** Rex Harrison, Susan Hayward, Cliff Robertson, Capucine, Edie Adams, Maggie Smith, Adolfo Celi

**Cecil Fox milioidun eszentrikoa da eta azpikerietan ibiltzen da. XVII. mendean Ben Jonsonek idatzitako "Il volpone" obran proposatzen den fartsa bere bizitzara eramatea erabakitzen du. Foxek hil zorian dagoenaren plantak egin, eta testamentua egingo du. Albistearen ondorioz, iraganean garrantzitsuak izan ziren hiru emakume etorriko dira Venezian duen jauregira.**

Cecil Fox es un millonario excéntrico y maquinador que decide trasladar a su propia vida la farsa que propone la obra 'Il volpone', escrita en el siglo XVII por Ben Jonson. Fox fingirá que está a punto de morir y, por lo tanto, de hacer testamento. La noticia atraerá a su palacio de Venecia a tres mujeres que fueron importantes en su pasado. //



## SLEUTH (1972)
AZTARNA
LA HUELLA

EE.UU 138'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz
**G:** Anthony Shaffer
**A:** Laurence Olivier, Michael Caine

**Andrew Wyke misterioko eleberriak idazten dituen idazle ospetsua da. Gainera, asmakizunek eta buru-hauskarriek txundituta dutenez, bere etxea museo moduko bat da, eta jostailu eta mekanismo oso arraroak ditu bertan. Arratsalde batez Milo Tindle gonbidatuko du etxera, bere emaztearen maitalea, eta plan bat proposatuko dio biek onurak lortzeko.**

Andrew Wyke es un prestigioso escritor de novelas de misterio. Además, su pasión por los juegos de ingenio y las adivinanzas lo ha llevado a convertir su mansión en una especie de museo en el que expone juguetes y mecanismos de lo más extravagante. Una tarde invita a su casa a Milo Tindle, amante de su mujer, para proponerle un plan del que ambos podrían salir beneficiados. //



## THE GHOST AND MRS. MUIR (1947)
MAMUA ETA MUIR ANDREA
EL FANTASMA Y LA SEÑORA MUIR

EE.UU 104'

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Philip Dunne
**A:** Gene Tierney, Rex Harrison, George Sanders, Edna Best, Vanessa Brown, Anna Lee, Robert Coote, Natalie Wood

**Lucy Muir emakume alargun gazte bat da, eta itsasertzean bizitzea erabaki du. Gregg kapitainarena izandako etxe sorgindua da, eta haren mamua agertzen zaio batzuetan. Mamuak beste batzuekin erabilitako trikimailu berdinak erabiliko ditu Muir andrea etxetik bidaltzeko, baina alferrik izango da.**

Lucy Muir es una joven viuda que decide irse a vivir a orillas del mar, a una casa encantada que perteneció al capitán Gregg, un marinero cuyo fantasma se le aparece. Al principio, el fantasma utiliza los mismos trucos que le sirvieron para deshacerse de otros inquilinos, pero con Lucy no funcionan. //



## DINNER AT EIGHT (1933)
AFARIA ZORTZIETAN
CENA A LAS OCHO

EE.UU 113'

**Z/D:** George Cukor **G:** Herman Jacob Mankiewicz, Frances Marion **A:** Marie Dressler, John Barrymore, Wallace Beery, Jean Harlow, Lionel Barrymore, Lee Tracy, Edmund Lowe, Madge Evans

**Emakume batek afaria lagun batzuentzat prestatu du. Senarrari bizipoza eman nahi dio, osasuna erasanda du eta. Nolanahi ere, senarraren kezka nagusienen arduraduna gonbidatu du: senarraren enpresako akzioak bereganatu nahi dituen negozio gizona, hain zuzen.**

Una mujer prepara una cena para unos amigos. Quiere animar a su marido, cuya salud está un poco resentida. No obstante, invita al responsable de las principales preocupaciones de éste: el hombre de negocios que quiere hacerse con las acciones de la empresa que posee su marido. //



## NO WAY OUT (1950)
IRTEERARIK GABE
UN RAYO DE LUZ

**EE.UU 106'**

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz, Lesser Samuels **A:** Richard Widmark, Linda Darnell, Stephen McNally, Sidney Poitier, Mildred Joanne Smith, Harry Bellaver, Stanley Ridges

**Bi lapur zaurituta gelditu dira, gasolindegi batean lapurreta egin osteko tiroketan, eta hiriko ospitaleko mediku beltz bakarrak artatu ditu, Brooks doktoreak. Haietako bat hil eta gero, beste lapurrak medikuari hura hil izana leporatu dio. Horrek matxinada arrazista eragin du.**

Tras atracar una gasolinera, dos criminales, heridos en el tiroteo, son atendidos por el doctor Brooks, el único médico negro del hospital de la ciudad. Cuando uno de ellos muere, el otro acusa al médico de haberlo matado, lo que provoca una revuelta racista. //



## CLEOPATRA (1963)
KLEOPATRA

**EE.UU 104'**

**Z/D:** Joseph Leo Mankiewicz **G:** Joseph Leo Mankiewicz, Ranald MacDougall, Sidney Buchman **A:** Elizabeth Taylor, Richard Burton, Rex Harrison, Pamela Brown, George Cole, Hume Cronyn, Martin Landau, Roddy McDowall, Cesare Danova, Kenneth Haigh

**Julio Zesarrek Egiptora joan beharko du gerra zibila saihesteko, Kleopatrak eta bere anaia Tolomeok ez baitute elkar ulertzen, boterea partekatzen duten arren. Emakume gaztearen inteligentziak eta edertasunak txunditu egiten du Zesar. Egiptoko erregina izendatuko du, eta, Zesarion semea jaio ondoren, bere emazte egingo du.**

Julio César se ve obligado a acudir a Egipto para evitar la guerra civil provocada por la falta de entendimiento entre Cleopatra y su hermano Tolomeo, que comparten el poder. César, cautivado por la inteligencia y belleza de la joven, la proclama reina indiscutible de Egipto, y tras el nacimiento de su hijo Cesarión, la convierte en su esposa. //

## SARRERAK ENTRADAS

**Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean**
Taquillas del cine y www.golem.es

4,5€ / 3,5€

**Zinema-aretoa filma ematen hasi baino 15 minutu lehenago zabalduko da. Ikusleei mesedez eskatzen diegu minutu batzuk lehenago etortzeko, txartel-leheihatilan ilarak saihesteko. Behin emanaldia hasita, ezin da aretoan sartu. Azkuna Zentroa ez da bere kudeaketatik kanpoko edozein arrazoirengatik programazioan izan daitezkeen aldaketen erantzulea.**

La sala de cine se abrirá al público 15 minutos antes de la proyección de la película. Se ruega a los espectadores y espectadoras que acudan con unos minutos de antelación para evitar colas en taquilla. No está permitido el acceso a la sala una vez comenzada la sesión.
Azkuna Zentroa no se resposabiliza de cualquier cambio de programación debido a circunstancias ajenas a su gestión.

**Azkuna Zentroko Zinematekak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urte osoan zinemari eta ikus-entzunezko sorkuntzari buruz. Hemen duzu programazioa eskuragarri: www.azkunazentroa.com**

La Zinemateka de Azkuna Zentroa organiza a lo largo del año diferentes actividades en torno al cine y la creación audiovisual. Puedes consultar la programación en: www.azkunazentroa.com

## LABURDURAK ABREVIATURAS

**A/F: Argazkiak** Fotografía
**A: Aktoreak** Actores
**B/N: Zuri-beltzez** Blanco y negro
**Dc: Dekoratuak** Decorados
**G: Gidoia** Guión
**JB/VO: Jatorrizko bertsioa** Versión original
**JBGA/VOSE: Jatorrizko bertsioa, gaztelaniaz azpititulatua** Versión Original con subtítulos en castellano
**K/C: Kolorea** Color
**M: Musika** Música
**Mu/Mo: Muntaketa** Montaje
**P: Produktorea** Productor
**Pr: Ekoizpen-etxea** Compañía productora
**S: Soinua** Sonido
**Z/D: Zuzendaria** Director

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU. AZKUNA ZENTROA ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.

SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PIDENOSLO. AZKUNA ZENTROA ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.

## ZENTROAREN ORDUTEGIA
HORARIO DEL CENTRO

| | |
|---|---|
| 7:00h - 23:00h | ASTELEHENA-OSTEGUNA<br>LUNES-JUEVES |
| 7:00h - 24:00h | OSTIRALA<br>VIERNES |
| 8:30h - 24:00h | LARUNBATA<br>SÁBADO |
| 8:30h - 23:00h | IGANDEA<br>DOMINGO |

**Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.**

Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medio ambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

# www.azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO
944 014 014

Depósito legal BI-129-2016

Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao
www.azkunazentroa.eus